

ERABAKIA, GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA. HONEN BIDEZ FORMALIZATZEN DA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK UDA IKASTAROAK FUNDAZIOARI (UNIBERTSITATEAREN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUA) BEREZKO IKASKETAK KUDEATZEKO EREDU BATEN PROIEKTU PILOTUA KUDEATZEKO EGINIKO ZERBITZU ENKARGUA.

Leioa, 2023ko uztailaren 11

Montse Maritxalar Anglada, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreorde gisa, unibertsitate horren izenean eta ordezkaritza, aintzat harturik UPV/EHUko errektorearen eskumenak eskuordetzeari eta haren gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari buruzko 2021eko urtarrilaren 28ko ERABAKIAREN bidez eskuordetuta dituen eskumenak (2021eko otsailaren 12ko EHAA).

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA.- Erabaki hau dago Sektore Publikoko Kontratuei (aurrerantzean, SPKL) buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen mende, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eraman diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak.

BIGARRENA.- SPKLren 32. artikulua araberaz: "*1. Botere adjudikatzailerak beren burua antolatu ahalko dute obra-, hornidura- eta zerbitzu- kontratuen eta obra- eta zerbitzu-erakundearen kontratuen bidezko prestazioak zuzenean emateko beste pertsona juridiko batez baliatuta, hari alde aurretik mandatua emanda eta tarifa bidezko ordain baten truke; horretarako, artikulua honetan xedatutakoari jarraituko diote, eta betiere erabiltzen duten pertsona juridikoak, zeina zuzenbide publikokoa zein zuzenbide pribatukoa izan baitaiteke, beren bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa merezi behar du (...)*".

HIRUGARRENA.- Artikulu horren arabera, Uda Ikastaroak Fundazioa UPV/EHUren bitarteko propio bat da, eta horixe adierazten du espresuki Fundazioaren Estatutuen 33. artikulua. UPV/EHUK oniritzia eman zien Estatutu horiei, Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 11n eginiko Akordio bidez.

Fundazioaren Estatutuen 6.1. artikulua araberaz: *Helburuak eta onuradunak. 1.- UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren helburuak dira:*

a. UPV/EHUko Uda Ikastaroak antolatzea.

b. Beste era bateko jarduerak antolatzea, "UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioko" Patronatuak bere egitea edo sortzea erabaki duelako.

LAUGARRENA.- UPV/EHUK uste du proba pilotu bat egin behar dela ikusteko ea bideragarria den ikasketa jakin batzuk kudeatzeko unibertsitatean ezarri nahi den eredu bat (hain zuzen, eredu ezarri aurretik).

6.1.b) atalaren arabera, UPV/EHUren ustez, Uda Ikastaroak Fundazioa, bere bitarteko propio gisa, baliabide ezin hobea da proba pilotu hau egiteko, bizitzan zeharreko prestakuntzaren alorrean UPV/EHUK abian jarri nahi duen jarduera eta ikasketa jakin batzuen kudeaketa ekonomiko eta administratiboko eredua aztertze aldera. Ondorioz, UPV/EHU prest dago baliabideak jartzeko, proba pilotua hirugarrenen berme osoz egin dadin, inolako kalterik eragin gabe UPV/EHUren Uda Ikastaroen antolaketari eta Uda Ikastaroak Fundazioak gaur egun egiten dituen beste jarduera batzuei.

Horiek horrela,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Formalizatzea eta arautzea UPV/EHUK Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko enkargua, aintzat harturik erabaki honen BALDINTZAK atalean eta eranskinean ezarritakoa.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUren kontratatzailearen profilean argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Uda Ikastaroak Fundazioari helaraztea, bere kontratatzailearen profilean argitara dezan.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- BALDINTZA OROKORRAK

UPV/EHUK Uda Ikastaroak Fundazioari eginiko enkargu honek, UPV/EHUren bitarteko propio pertsonifikatua den aldetik, ez du aldatuko bere jarduerari loturiko obren, instalazioen eta ekipamenduen titulartasuna (UPV/EHUK jarraituko du izaten titularra), eta ez du eraginik izango ere ikerketen emaitzen titulartasunean, ezta sor daitezkeen jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubideetan ere (eskubide horiek UPV/EHUrenak eta haren irakasle-ikertzaileenak izaten jarraituko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera).

Era berean, enkargu honek ez du esan nahi eskumenaren titulartasuna lagatzen denik, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzen direnik ere, eta enkargua egiten duen organo edo erakundearen erantzukizuna izango da enkarguaren xede den jarduera material zehatzaren euskarri diren egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea. Halaber, UPV/EHUri dagokio enkargu honen xede diren jarduerak eta ekintzak zuzentzea eta planifikatzea, hargatik eragotzi gabe jarduera horien koordinazioa fundazioaren zuzendaritza akademikoarekin eta administrazio orokorrarekin.

Horrenbestez, Uda Ikastaroak Fundazioak UPV/EHUK eginiko enkargua gauzatzeko antolatuko dituen ikastaro edo jardueretan eman ditzakeen titulu akademikoak

UPV/EHUren tituluak izango dira beti, eta azken horri dagokio horien gaineko erantzukizuna, bai eta ikasleen eta prestakuntza emango duten hizlarien gaineko erantzukizuna ere.

UPV/EHUK, enkargua betearaztean, zuzenean kontrolatuko ditu soil-soilik enkargua betetzera bideratutako Uda Ikastaroak Fundazioaren jarduerak.

Enkargu hau egin da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 32. artikularen eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren babesean, eta eraginkortasun eta errentagarritasun ekonomikoko arrazoiek justifikatzen dute, kontuan harturik Uda Ikastaroak Fundazioak prozedurak, aplikazioak, langileak eta ekipamenduak dituela, aukera ematen dutenak agindutako jarduera bakoitza modu eraginkor eta indibidualizatuan kudeatzeko.

BIGARRENA.- ENKARGUAREN XEDEA

UPV/EHUK Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propioa) eginiko enkarguaren helburua da proiektu pilotu bat kudeatzea, berezko ikasketak kudeatzeko eredu bat garatzeko balioko duena, unibertsitatearen ikasketa tipologia barne hartuko dituzten hiru campusetako titulazio jakin batzuetan.

Enkargu honen eranskinean jaso dira enkargatutako jardueren deskribapena eta xehetasuna. Hala ere, enkarguaren indarraldian premia berriak sortu eta hasieran aurreikusi ez badira, erabaki osagarri baten bidez gehitu ahal izango zaizkio erabaki honi. *A posteriori* formalizatutako eranskinak enkargu honen parte izango dira, Uda Ikastaroak Fundazioa jakinaren gainean jarri ondoren.

Enkarguaren xede diren prestazioak zabaltzea proposatzen bada, baldintza hauek bete beharko dira:

- Dagokion administrazio espediente bideratu beharko da, jasota uzteko nahikoa kreditu dagoela proposatu den gehikuntzari aurre egiteko.
- Hasieran enkargatutakoen mota bereko lanak izango dira, lanen epea luzatzeko edo lanak egingo dituzten lantaldeak handitzeko aukera gorabehera.
- Prestazio berriak sartu ahal izango dira, baldin eta lotura zuzena badute hasieran enkargatutako prestazioekin.
- Irakaskuntza berriak sartu ahal izango dira.

Uda Ikastaroak Fundazioak nahitaez egin beharko ditu enkargatu zaizkion jarduerak, ezarritako jarraibideen arabera.

HIRUGARRENA.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Uda Ikastaroak Fundazioak kudeatuko ditu enkargatutako jardueretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta Fundazioak kontratatutako pertsonen ez dute inolako lan edo administrazio harremanik izango UPV/EHUrekin.

LAUGARRENA.- AZPIKONTRATAZIOA

Uda Ikastaroak Fundazioa UPV/EHUren bitarteko propio pertsonifikatua izateak, haren xede sozialak, UPV/EHUren Uda Ikastaroen antolakuntzan duen esperientzia zabalak (1993tik, ikastaroen 12. ediziotik) eta haren lantaldearen kualifikazioak, prestakuntzak eta esperientziak justifikatzen dute enkargu honen laguntza teknikoko jarduerak erakunde horren esku uztea.

Horregatik, konkurrentzia publikoari, ez-diskriminazioari eta publikotasunari buruzko Estatuko eta EBko printzipio eta arauak betetzeko, Uda Ikastaroak Fundazioak ezin izango du azpikontratatu enkargatutako jardueraren funtsezko zatirik. Hala ere, Uda Ikastaroak Fundazioak hirugarrenekin kontratatatu ahal izango ditu enkarguaren funtsezko zati ez diren kanpoko zerbitzuak, UPV/EHUren Uda Ikastaroak antolatzean egin ohi duen bezala (catering zerbitzua, azafata zerbitzua, itzulpen zerbitzua, auditoria, bidaia agentzia zerbitzuak, marketin eta komunikazio zerbitzuak, etab.), analogiaz egokitzen baita (KZ 4.1 art.) SPKLren 32. artikularen 7.b) atalaren bigarren paragrafoan ezarritakora: *"Bitarteko propioak hirugarrenekin prestazio partzialak kontratatzen baditu, haien zenbatekoa ez da izango enkarguaren zenbatekoaren ehuneko 50etik gorakoa. [...] Halaber, ez da aplikatzekoa izango zerbitzu publikoa propio horretarako sortutako zuzenbide publikoko erakunde bidez kudeatzen den kasuetan, ez eta zerbitzu publikoa kapital osoa titulartasun publikokoa duen zuzenbide pribatuko sozietateren baten bidez kudeatzen den kasuetan ere"*.

Gainera, Uda Ikastaroak Fundazioak ez die lagako, azpikontratatu edo transmititu hirugarrenei enkargu honetatik sortutako bere eskubide edo betebeharrak bera ere, UPV/EHUren baimen idatzirik gabe.

Uda Ikastaroak Fundazioak azpikontratatzeko baimena eskatu beharko dio UPV/EHUko errektoreari. Azpikontratatzeko baimen eskaera behar bezala justifikatu beharko da, honako hauek jasota: kontratazioaren xede diren lan zehatzak, haien kostua, kontratataren nortasuna, haren jardura nagusia eta haren egokitasuna eta gaitasuna egiaztatuko duten lan erlazionatuak. Eskaerarekin batera, entregatu beharko da kontratatzen den erakundearen espezializazioa egiaztatzen duen dokumentazioa, bai eta erakunde horrek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria ere.

Uda Ikastaroak Fundazioa ez da bere betebeharretatik salbuetsita egongo, enkargu honen edozein alderdiri buruzko edozein kontratu egiteagatik, edo haren edozein zati betetzeko edozein betebeharrak eskuordetzeagatik. Beraz, Uda Ikastaroak Fundazioa izango da erantzule bakarra azpikontratuetatik eta horiekin zerikusia duten erreklamazioetatik eratorritako bere betebeharrak betetzeari dagokionez, eta obligatu nagusi gisa erantzungo die azpikontratista, agintari edo aholkulari

independente horietako edozeinen ekintza edo ez-egiteei, ekintza edo ez-egite horiek Uda Ikastaroak Fundazioarenak balira bezala, enkargu honetatik eratorriak.

BOSGARRENA.- ENKARGUA FINANTZATZEKO AURREKONTUA, ENKARGUAREN TARIFAK ETA HIRUGARRENEI AZPIKONTRATATUTAKO ZERBITZUEN KONTRAFAKTURAK

Enkargu honen jarduerak finantzatzeko aurrekontua 287.562,61€-koa izango da gehien jota.

Gehieneko hori kalkulatu da egin beharreko jarduerak aurreikusita, eta atal hauek ditu:

- Enkargu hau betetzean Uda Ikastaroak Fundazioak bere giza baliabideekin eta baliabide materialekin zuzenean egingo dituen jarduerak finantzatzea.

Uda Ikastaroak Fundazioak tarifa konpentsazio bat jasoko du enkargatu zaizkion lanengatik, eta konpentsazio horren kalkuluak estaliko ditu enkargua betetzean sortutako kostuak (haien prezio zenbatetsia eranskinean jaso da).

- Enkargu hau betetzean Uda Ikastaroak Fundazioak zerbitzu batzuk hirugarrenei azpikontratatuta zeharka egingo dituen jarduerak finantzatzea. Atal honetan hainbat ordainketa sartzen dira: irakasleen dietak, bidaiak eta ostatua, komunikazio zerbitzuak, aholku zerbitzuak, etab.

Gastu horiek guztiak bereiz fakturatuko dira, gastuak ordaintzen dituzten UPV/EHUren aurrekontu partiden arabera:

- Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren aurrekontuaren kontura ordaindutako kostuak, proba pilotuaren inplementazio orokorragatik (diseinua, egiturazko garapena eta ebaluazioa).
- Proba pilotuan sartutako ikasketa bakoitzaren aurrekontu partiden konturako kostuak.

Eranskinean ikus daitezke ordutegi tarifak.

SEIGARRENA.- PROBA PILOTUAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Proba pilotuaren jarraipena egiteko, UPV/EHUK ezartzeko asmoa duen berezko ikasketen kudeaketa ekonomiko eta administratiborako eredu posible baten bideragarritasuna eta garapena aztertze aldera, Jarraipen Batzorde paritario bat eratuko dute UPV/EHUK eta Uda Ikastaroak Fundazioak. Batzorde horretako kide izango dira Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak izendatutako 2 pertsona eta Uda Ikastaroak Fundazioak izendatutako beste 2 pertsona. Jarraipen batzordea urtean bitan bilduko da gutxienez, ereduaren bideragarritasuna aztertzeke.

ZAZPIGARRENA.- UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN ARDURA ETA KONFIDENTZIALITASUNA

Lanak Uda Ikastaroak Fundazioak egingo ditu, arreta handiz zainduz UPV/EHUren interesak. Uda Ikastaroak Fundazioko kideek isilpean gordeko dituzte enkarguaren indarraldian eskura ditzaketen datuak eta informazioak, bai eta enkargua amaitzean ere.

ZORTZIGARRENA.- DATUAK BABESTEA

Enkargu honen jardueretan, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du Uda Ikastaroak Fundazioak: 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren beste guztiak. Bi aldeek konpromisoa hartzen dute errespetatzeko enkargua gauzatzean edo haren ondorioz eginiko beste edozein akordio espezifikotan ematen den informazioaren konfidentzialtasuna.

Bitarteko propio den aldetik, Uda Ikastaroak Fundazioak, enkargu hau gauzatzean, tratamendu arduradunentzat indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak izango ditu.

BEDERATZIGARRENA.- INDARRALDIA

Enkargu honek ondorioak izango ditu Uda Ikastaroak Fundazioari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera, eta enkargatutako lan guztiak egiteko epea izango da proba pilotua garatzeko eranskinean ezarritakoa. Epe hori amaitu baino lehen, espresuki luzatu ahal izango da, iraupen bereko beste aldi baterako, arloan eskumenak dituen errektoreordetzaren esanbidezko erabaki bidez, baldin eta aurrekontu kontsignazio egokia eta nahikoa badago eta proba pilotuaren jarraipenaren ebaluazioa egin ondoren beharrezkoa dela justifikatzen bada, dagokion erabaki bidez. Luzapenen eta hasierako aldiaren batura ezin izango da izan 2 urtetik gorakoa.

HAMARGARRENA.- GARDENTASUNA

Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea bermatze aldera, Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikulua aplikatuz, enkargu hau UPV/EHUren Gardentasun Atarian argitaratuko da.

HAMAIKAGARRENA.- ENKARGUA ALDATZEA

Enkargua aldatu ahal izango da amaitu aurretik, dagokion Errektoreordetzaren erabaki bidez. Aldaketa idatziz jakinaraziko zaio modu frogagarrian Uda Ikastaroak Fundazioari, eta erabaki honi gehituko zaio eranskin gisa (erabaki honen parte izango da). Nolanahi ere, enkargua aldatu egin beharko da, hala dagokionean, haren edukia aplikatu beharreko araudira egokitzeko.

HAMABIGARRENA.- SUNTSIARAZTEA

Enkargu honen baldintzaren bat betetzen ez bada, modu arrazoituan suntsiaraztea erabaki ahal izango da. Kasu horretan, enkargua likidatuko da, eta konpentsazio eskubidea aitortuko zaio Uda Ikastaroak Fundazioari, benetan eginiko jarduerengatik.

HAMAHIRUGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA AURREKO AKORDIOAK IRAUNGITZEA

Enkargu hau administratiboa da eta ordenamendu juridiko-administratiboak arautzen ditu haren interpretazioa eta garapena. Enkargua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko aplikatuko dira Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean edo hura ordeztzen duen araudian jasotako printzipioak.

Montse Maritxalar Anglada
UPV/EHUko GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN
ARLOKO ERREKTOREORDEA

ERANSKINA

PROIEKTU PILOTUAREN BARNEAN DAUDEN BEREZKO IKASKETEN KUDEAKETA

LEHENENGOA.- ENKARGUAREN XEDEA ETA EDUKIA

Enkarguaren xedea da berezko ikasketen kudeaketa eredu posible baten garapena aztertzeke balioko duen proiektu pilotu bat kudeatzea. Haien arduradunekin adostuta, berezko ikasketa hauek sartu dira proiektu pilotuan (UPV/EHUn dauden ikasketa tipologiai barne hartzen dituzten hiru campusetako titulazioak):

- Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0 etengabeko prestakuntzako masterra. Bi espezialista modulu dituen egitura modularreko titulu bat da (Araba).
- 2030 Agendaren eta GJHen Integrazio Estrategikoa, Jarraipena eta Komunikazioa unibertsitate espezializazioa (Bizkaia).
- Euskal Diaspora unibertsitate espezializazioa (Araba).
- Unibertsitate Hedakuntzako Diploma: Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoa (Gipuzkoa).

Proiektu pilotua kudeatzearen zereginak izango dira, oro har:

- Haren prestaziorako behar diren zerbitzuak eta egiturazko garapenak diseinatzea.
- Proba pilotua ebaluatzea.
- Enkargatutako ikasketen matrikulen administrazio tasen bilketa materiala, unibertsitatearen kontuetan sartuz bildutakoa, tasen behin betiko likidazioa egin ondoren.
- Hornitzaileei, pertsonalari eta irakasle-ikertzaileei egin beharreko ordainketak izapidetzea eta kudeatzea, eta haiekiko harremanak. Berezko irakasle-ikertzaileen ordainsariak UPV/EHUK ordainduko ditu, nominaren bidez.
- Aholkatzea eta espedienteen dokumentazioa prestatzea.
- Kudeatutako espedientei lotutako diru sarrerak eta gastuak kudeatzea.

Fundazioak fakturak eta gastuen likidazioak aurkeztuko dizkio UPV/EHUri, Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzari zuzenduak, proiektu pilotuaren diseinuarekin, egitura garapenarekin eta ebaluazioarekin zerikusia duten gastuak direnean (irakaskuntza guztiei dagozkien gastuak), eta ikasketa bakoitzaren arduradunei zuzenduak, irakaskuntzaren kudeaketatik beretik sortutako gastuak direnean.

Enkargu honen barruan Fundazioari dagozkion jarduerak egingo dira Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzarekin eta berezko Ikasketaren Zuzendaritza Akademikoarekin koordinatuta.

Aukeratutako ikasketen kudeaketak ez du eraginik izango programen, emaitzen eta sortutako jabetza industrial eta intelektualaren eskubideen titulartasunean, eta

UPV/EHUri eta haren irakasle-ikertzaileei dagozkien, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Era berean, UPV/EHUri dagokio matrikulatutako pertsonen ematea berezko ikasketak burutzearen ondorioz sortzen diren berezko titulu akademikoak, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

Uda Ikastaroak Fundazioak bitartekaritzan eginiko kontratuei buruzko kontabilitate lan egokia egingo du.

Kontabilitatea, harekin loturiko dokumentuekin batera, UPV/EHUn eskura egongo da beti.

Kontratu honen kargura langileak kontratatzean, berdintasun eta publikotasun printzipioei jarraituko zaie, eta ez dute inolako lan edo administrazio loturarik izango UPV/EHurekin.

Eranskin honetan jaso dira UPV/EHUn Uda Ikastaroak Fundazioak egin beharreko zereginak, eta ekintzen arabeko ordutegi estimazioa edo azpikontratazioa.

BIGARRENA.- ENKARGUAREN TARIFAK

Enkarguaren balio zenbatetsia 287.562,61 € da. Balio zenbatetsi hori gehieneko aurrekontu batean oinarritzen da.

		Zenbateko proposamena
Fundazioko lan orduen fakturazioa		48.893,60 €
Azpikontratazioa	Hizlarien ordainsarien fakturazioa	75.156,00 €
	Proba pilotua martxan jartzeko azpikontratatu beharreko beste gastu batzuen fakturazioa	25.872,01 €
	Hizlarien dieten, bidaien eta ostatuaren fakturazioa, eta programa bakoitzaren premien ondorioz azpikontratatu beharreko beste gastu batzuk (irteeretakako autobusak, komunikazio/publizitate kanpaina, bideoa,...)	137.641,00 €
GUZTIRA		287.562,61 €

Partiden arabeko banaketa hau gutxi gorabeherakoa da, eta balio zenbatetsia kalkulatzeko erabili da. Proba pilotuaren garapenaren arabera, bi aldeek adostu dute balio loteslea dela guztizkoa, halako moldez, non gastu gehiago egin litekeen

partidaren batean eta gutxiago besteren batean, inola ere gainditu gabe zenbatetsitako balio guztizkoa.

Zenbatekoak honela likidatuko dira:

- Sartutako orduen fakturazioa, prezio hauen arabera:
 - Kudeaketa teknikoa: 48,61 €/ordu.
 - Administrazio kudeaketa orokorra: 65,69 €/ordu.
 - Zuzendaritza akademikoaren kudeaketa: 38,44 €/ordu.

Fundazioak hilero bidaliko ditu faktura eta sartutako orduen zerrenda UPV/EHUra.

- Arduradun gisa aritzean hirugarrenei (hornitzaileak, hizlariak, etab.) dagozkien fakturen birfakturazioa.

Faktura jasotzean, faktura baliokidea bidaliko du Fundazioak UPV/EHUra, eta 20 eguneko epean ordaindu beharko da, Fundazioak ordainketei aurre egin ahal izateko.